




EGUNAREN IZENA



Doinuaren jasotzailea: J.A. Santesteban.

Bertso honen egilea: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831-1876 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Potajiarena" bertso sortako lehen bertsoa da. Bilintxek sortan azaltzen du, Oiartzunen (Gipuzkoan) pilota partida bat ikusi ostean, nola sartu zen ostatu batera bazkaltzera. Mahaian apaiza egokitu zen eta garbantzu (edo potaje) platerkada handiak jan zituen hark, Bilintx goseak utziz.

Egunaren izena
ez dakit nola **zan**,
baiño seiñalagarri
partidu bat **bazan**,
pelotan jokatzeko
Oiartzungo **plazan**;
nahi det nere orduko
gertaera **esan**,
hurrenguan beste bat
eskarmenta **dezan (bis)**.

